



Ale honetan

Aurkezpena 1

Bestelako lankidetzak

Joseba Ezeiza Ramos

Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (eta III): prozedura metodologikoak 3

M^a José Lasheras Rodríguez

Moodle plataformaren erabilera didaktikoa irakasleen prestakuntzarako: orain arteko eskarmentua 29

José Luis Vera Batista

Euskara-ikasgai bat nola planifikatu euskara H₂ denean: iruzkinak eta iradokizunak 46

Beste iturrietatik

Garon Wheeler

Krashen, historiaren biktima 74

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

HARPIDETZA-ORRIA



Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta PK:

Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2007an hiru ale:
13 €. Honela ordainduko dut:**

NAN:

☐ Kontu korronte bidez


Bankua edo Aurrezki-kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

☐ Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

☐ HABEren izenean luzaturiko txkekez



**Helbide honetara bidali behar da:
Hizpide aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEk aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



Aurkezpena

Hona hemen, irakurle, Hizpideren 65. alearen mamia.

Bestelako lankidetzak.– “Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (eta III): prozedura metodologikoak” horixe dugu Joseba Ezeizak idatzi duen artikulu-sortaren hirugarren eta azken ekarpena. Azken 50 urteotan aldabide nabarmena izan da hizkuntzen irakaskuntzarako metodologia-ren arloan. Arian-arian irakaskuntzarako teknika ugari sortu dira. Haatik, une honetan ez dugu datu nahikorik beroien eraginkortasuna zenbaterainokoa den erabakitzeke. Mugak muga, HEOKak hiru eskakizun ezartzen dizkio metodologiari: a) Adimen-eragiketa eraginkorrak bultzatu eta lagundu behar ditu; b) hizkuntzaren ezaugarri pragmatiko zein formalak jarri behar ditu jokoan; c) ikasleen satisfazio-maila eta ikasteko gogoia areagotu behar ditu.

Hainbat dira irizpide horietan oinarria duten prozedura metodologikoak. HEOKak horietako batzuk aipatzen ditu gai honi eskainitako atalean (HEOK, 1999: 86-88). Aldeak alde, denek dute alderdi komun bat: denek iradokitzen dute hiru etapako eredu orokor bat: a) egin aurrekoa (helburuez jabetzeko; aurrezagutzak aktibatzeke; planifikatzeko; etab.); b) egin bitartekoa (kontrol mekanismoak, lagungarriak...) eta c) egin ostekoa (feedbacka, ebaluazioa, errepikapena...).

Lan honetan aztertu nahi izan dugu nola jorratzen diren hasiberrientzako ikasmaterialetan aldagaiok: nola kudeatzen dituzten ikastearen alderdi psikologikoak, linguistikoak eta afektibo-bolitiboak, prozedura metodologiko orokorraren hiru etapetan. Horren bidez, ikusi ahal izan dugu nola irudikatzen duten material horiek ikas-prozesua eta zenbateraino hurbiltzen diren HEOKaren planteamenduetara.

Bigarren artikulua M^a José Lasheras HABEko teknikariaren eskutik datorrigu. Lanaren izenburua da “Moodle plataformaren erabilera didaktikoa irakasleen prestakuntzarako: orain arteko eskarmentua”. Egileak berak dioskunez, 2001 urtetik aurrera HABE euskara-irakasleen prestakuntzarako online ikastaroak diseinatzeko eta eskaintzen dihardu. Eskainitako ikastaro batzuen gaiak aipatze aldera hauexek azpimarratuko genituzke: “Ikasmaterialetan diseinua online”, “Talde birtualen dinamizazioa”, “Concordancer programa informatikoa - Testuetako osagai linguistikoak aztertzeko”, “Autoikaskuntza (oinarrizko kontzeptuak) eta Boga”, “Osatuz materiala erabiltzeko irizpideak”, “Internet didaktizatzen: Blogosfera euskararen ikas-irakaskuntzan”...

Euskara-irakasle ugari dira ikasle gisa parte hartu dutenak ikastaro birtual horietan, hau da, Internet bidez emandakoetan. Egileak artikulua honetan azalduko du Moodle euskarri telematikoa nola erabili den irakasleak prestatzeko.

Hurrengo artikulua La Laguna unibertsitatean irakasle ari den José Luis Verak idatzi du. Izenburua: “Euskara-ikasgai bat nola planifikatu euskara H₂ denean: iruzkinak eta iradokizunak” Ikasgelan, ikasleen aurrean zer egingo den aurrez pentsatu eta prestatzea funtsezko egitekoa da irakaslearentzat. Eskola-saio bakoitza puzzle osoago baten zati bat baino ez da eta, beraz, prestatze horretan, programazio-lan horretan, eskola-saio bakoitzaz gaindiko mugarriak hartu behar ditu kontuan irakasleak. Gai agortezina da, zinetan, programazioarena. Artikulugileak dioenez, ikasgai bat planifikatzea ez da ekintza isolatua, baldintza eta alderdi ugari hartu behar baitira aintzat. Alderdi horiek jorratuko ditu xeheki bere artikuluan.

Beste iturrietatik.— Menta handia izan du hizkuntza irakaskuntzarn alorrean Stephen Krashen-en teoriak. Bere bost hipotesiak bolo-bolo barreiatu ziren 80.eko hamarkadan hizkuntza irakasleen artean. Bazirudien gaitz guztien sendagaia zekarrela besapean Krashen-ek. Baina, urteak joan urteak etorri, eta, gero eta kritika zorrotzagoak jaso ditu batez ere giro akademikoan.

Garai bateko estimu handiko aditu hura, kongresuz kongresu bere hipotesien berri, ia-ia guru baten antzera, ematen ziharduena zeharo bazter utzita dago gaur.

Merezi du, helduen euskalduntze-alfabetzean dihardugunontzat, haren historiari begirada bat egin eta gogoan hartzea, agian, gaur Krashen-i buruz esaten direnak hemendik hamabost edo hogeitaz urtera ere esan egingo direla gaurko hainbat teorialari punta-puntakoei buruz. Garon Wheeler-ek labur baina harira joanez aztertzen du Krashen-i gertatutakoa, eta, agerian jartzen ditu, orobat, fedeitsuak dituen arriskuak.

Horra, irakurle, alearen mamia. Hizpidek probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.